

## 2011KO OTSAILAREN 4AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Laua.

**HILABETEA:** Otsaila.

**URTEA:** Bi mila eta hamaika.

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko hamarrak eta erdietan.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Josi Insausti Mujika

Julio Herreros Serna

**EZ DA ETORRI:** Begoña Lasa Royuela

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2011ko urtarrilaren 21eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.-OBRAK KONTRATAZEA.** Igartzako errotariaren etxean erromesentzat aterpea egiteko obrak kontratatzeke baldintza plegua onartzea.

Hirigintza batzordeko proposamenaren arabera, aho batez onartu da, Igartzako errotariaren etxean erromesentzat aterpea egiteko obrak kontratatzea eta horretarako baldintza plegua onartzea. Lizitazio prezioa, **126.873,21 € gehi BEZ**, denez kontratazioa prozedura negoziatuaren bidez egitea erabakia da, esleipen irizpidea, prezio baxuena izanik. Egikaritze epea 8 astekoa izango da. Beraz, hiru enpresei gonbidapena bidaliko zaie lizitaziora aurkezteko.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**3.- ZERBITZUAK ESLEITZEA.** Igartza multzo monumentalaren kudeaketa.

Igartza batzorde bereziaren proposamenaren berri eman da:

“Alkateak, 2010eko azaroaren 12an Gobernu Batzordeak hartutako erabakiren arabera, ondorengo ebazpena eman zuen:

Deialdi publikoa egitea eta baldintza plegua onartzea, Igartzako multzo monumentala kudeatu eta ustiatzeko. Deialdia, 2010eko azaroaren 18ko GAOean argitaratu zen eta eskakizunak aurkezteko epean, bakarrik Iban Mate, Dolarea Hotela, S.L.ren ordez sinatutakoa aurkeztu zen.

Dokumentazioa administratiboa aztertu ondoren, ikusi zen dokumentu hauek falta zirela:

- 1.- Lizitzaile enpresa-ordez kariaren NAREN kopia.
- 2.- Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen Legearen 49. artikuluan kontratatzeko aurreikusitako debekuak ez izateari buruzko aitormena.
- 3.- Enpresako zuzendaritza-pertsonalaren akademia-titulazioen eta zehazki, kontratua exekutatzeko ardura duen pertsonalaren titulazioen kopiak.

Aldi berean, B kartazala ireki eta gero ikusi zen proposatutako ekintzetatik kanpo, ez zela aipatzen zerbitzua nola eman behar den, eraikinen mantentze eta garbiketari dagokionean. Ezta ere horretarako eta bisita gidatuentzat eta erakusketak zaintzeko erabiliko den pertsonalari buruz.

Hori guztia osatzeko bost eguneko epea eman zitzaion eta epe hori igaro eta gero, aipatutako dokumentazioa ekarri du, enpresa zuzendaritzaren eta partikulari kontratua exekutatu behar duen pertsonalaren titulazioak ezik. Hau da, hain zuzen ere, kaudimen tekniko eta profesionala zurrizko baldintzetako bat eta azken finean, lizitazioa onartua izateko edo ez izateko aurreikusten den baldintza.

Dena dela, kontratatzen den zerbitzuak dituen ezaugarriaren arabera, titulazioa ez izateak ez du hainbestearinoko garrantzirik, ez delako kualifikazio berezirik eskatzen. Izan ere, kontratuaren xedeak hainbat zerbitzu aurreikusten ditu. Hau da, hain zuzen ere, bi urte froga moduan ezartzearen arazoia.

Jarduera memoria aurkezten du, egite proposatzen dituenak erlacionatuz, baina inolako egutegirik gabe. Bakarrik esaten du udal kultura departamentuarekin adostuko direla.

Garbiketa eta mantentze-lanen programazioa ere aurkezten du eta lan taldea zeintzuk osatzen duen esaten badu ere, ez du aipatzen zerbitzuak nola emango diren.

Eskaintza ekonomikoari dagokionean, baldintza pleguan adierazten den prezioa eskaintzen du, hau da, urteko 30.000 € gehi BEZ.

Horren ondorioz, Kontratazio mahaiak, aurkeztutakoa hobetzen duen eskaintza ez dagoenez eta nahiz eta jabe izan, baldintza pleguan eskatzen denaren arabera aurkeztutako eskaintza ondo definitu gabe dagoela, sozialista taldeko ordezkariaren aurkako botoarekin (Dolarea eramaten duenaren alde egin zela baldintza plegua, dio) eta ALKARBIDEren abstentzioarekin (baldintza pleguan jartzen zen hainbat xehetasunen alde ez zegoen), kontratazio organoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Lehenik.** DOLAREA HOTELA, S.L.ri Igartza multzo monumentalerako kudeaketa eta ustiaketa esleitzea, urteko 30.000 € gehi BEZ prezioan, baldintza pleguaren eta berak aurkeztutako eskaintzaren arabera.

Froga modura bi urteko epea ezartzen da, kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe hori igaro ondoren eta kulturako eta Igartzako udal batzordeetako nahiz multzo monumentaleko koordinatzailearen txostenen arabera, Udalak erabakiko du kudeaketa mantentzea edo bertan behera uztea. Aldi berean, epe hori bukatzen denean, adjudikaziodunak kontratua desegitea erabaki dezake. Kontratua desegiteko borondatea duenak, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago adieraziko du.

Mantentzea erabakitzen bada, bi aldeek ados egon ezkeru urtez urte kontratua luzatu dezakete, baina edozein kasutan ere ezin izango da lau urte baino gehiago gainditu frogako epea barne kontutan izanda.

Aldez aurretik, adjudikaziodunari jakinaraziko zaio hamar laneguneko epean, 3.000 €ko behin betiko fidantza aurkeztu behar duela.

Abala aurkeztu eta gero, zerbitzua esleitu da eta jarraian kontratu administratiboa sinatuko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, PP eta EAJko ordezkariak proposamenaren alde azaldu dira.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE), adierazi du Igartzako Batzordean azaldutako jarrera mantentzen duela eta horren ondorioz ez duela onartzen.

Josi Insausti jaunak, hain zuen ere, ALKARBIDEko ordezkaria abstenitu egin da eta esan du ez daudela proposamena aurkezten duenaren aurka, baina ez daudela ados baldintza pleguan aurreikusitakoarekin.

**4.- TXISTULARI BANDA.** Zuzendari berria izendatzea.

Gobernu Batzordeak, kontutan hartu du, 2010eko urriaren 30ean, Txistularien Alardea ospatu zenean, hain zuzen ere, Jose Agustin Olano Segurola jaunak Udal Txistulari Bandaren zuzendaritza utzi egin zuela eta kargu horren ardura, 2004ko irailaren 21etik banda horren partaide den, JOSEBA IBARGUREN ZABALETA jaunak hartu zuen.

Beraz, gaur egun, Beasaingo Udal Txistulari Bandaren zuzendaria, JOSEBA IBARGUREN ZABALETA jauna da.

#### **4.- ESKAERA ETA GALDERAK.**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

##### **ESTEBAN LASA KALEKO ETXEBIZITZA TASATUAK**

Idazkariak honen berri eman du: “Udalak, kontsolidatutako egoiliarra den hiri-zoruaren eremu zehatz batzuetan dauden, hirugarren sektorekoa izatetik etxebizitzetarako izatera aldatzeko jarduerak arautzen dituen udal ordenantzaren 8. artikulua araberan 8 (GAO, 2010-09-13), 2 etxebizitza tasatu esleitzeko prozedurari hasiera eman zion.

Horretarako, eskaerak aurkezteko epea ezarri zen 2011ko urtarrilaren 10etik 31ra eta zozketan parte hartzeko, baldintza hauek ezarri ziren:

*1.- 2010eko azaroaren 30a baino lehen etxebizitza tasatua erosteko erregimenean Etxebiden inskribatuta egotea.*

*2.- Beasaingo udalerrian erroldatuta egotea era honetan: etengabe bi azken urteetan edota azken hamar urteetan, bost urte osatzen duten egun kopuruetan, beti ere 2010eko abenduaren 1eko erreferentzi data kontuan izanda.*

Epe horretan, ordea, agian etxebizitza horien tamainagatik (42,5m<sup>2</sup> eta 49,m<sup>2</sup>) edo behe oinean daudelako, bakarrik MAIDER MAIZA AZCARAY andreak sinatutako eskaera aurkeztu da.”

Bildutakoek ondorengo erabakia hartu dute:

**Lehenik.** Pertsona honek lehenengo baldintza betetzen duen Etxebideri galdetzea eta bide batez eskatzea, Beasainen edo eskualdean etxebizitza tasatuen interesatuta daudenen zerrenda bidaltzeko.

**Bigarren.** Etxebizitza horietako bat, aipatutako eskatzaileari esleitu eta gero, hala badagokio behintzat, bidalitako zerrendan azaltzen direnei jakinaraztea, gelditzen den beste etxebizitza esleitzeko zozketan parte hartzeko aukera dutela.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera, 11,00etan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.